



2017ko abenduaren 30a, larunbata ::: 227 zk. ::: www.kronika.eus :::

■ ASTIGARRAGA

Urte berriaren hasiera, ekintzaz blai

Etzi emango zaio hasiera urte berriari, baita urteko aurreneko hilabeteari ere. Eta horrekin batera, ekintza mordoxka izango dira Astigarragan; tartean, txotxaren hasiera.

GABONAK atzean utzi, eta asmo berriekin martxan jartzea izaten da gehienek urtarrilean daukaten helburua. Era berean jarriko da martxan hilabete berriko kultur agenda, plan, asmo eta proposamen zaharberrietuekin. Gabonak borobilduko dituzte azkeneko ekintzekin, eta festari segida emanez iritsiko da txotx denboraldiaren hasiera, hilaren 15arekin batera. /5

■ HERNANI

Marta Igarritzen senideen istripua salatuz, agerraldia

Agerraldia egin zuen atzo Etxerak, salatuzko Marta Igarritzen pre-soaren senideen istripua. Bihar, Martuteneko kartzelara martxa deitu du Kalera Kalerak. /3

■ ASTIGARRAGA

«Oso urte garrantzitsua», astigarrarentzat

Urte bukaera dela aprobetxatuz, 2017aren balorazioa egin du EAJren Udal Gobernuak. Lorpenak aipatu dituzte, eta 2018rako konprometua berretsi dute. /6

■ EREÑOTZU

Festa haundia, 2017a agurtzeko

Gabon Festa haundiarekin agurtuko dute 2017a ereñotzuarrek. Arratsaldeko 18:00etan hasiko dira ekintzak, familia osoarentzat, frontoian. /7

■ GOIZUETA

Mus txapelketa, Umore Onan

Urtero bezala, mus txapelketa egingen dute bihar Umore Ona elkarteak, urtea behar bezala agurtzeko. 16:00etatik aurrera izanen da txapelketa. /7

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-4

Gabonak, Bertsolata, Jasota Bezala, kirolak...

Astigarraga /5-6

Udal Gobernua, agenda, Gazte Asanblada, kirolak...

Urumea /7

EHko mus txapelketa, Goizuetako Olentzero, Umore Ona pilota txapelketa...

Bolatxoaren irrika

Bingo solidarioa egin zuten atzo kiroldegian, Elikagai Bankurako janaria biltzeko; eta irrikaz beteta bildu ziren bolatxoaren bueltan, haurrak eta gurasoak. ||



PUNTA CANA Urtarrilaren 8, 15, 22 eta 29an <i>Madriðtik hegaldia</i> 7 gau 5* hotelean, DENA BARNE	890 ¹⁰⁰ €
MEDITERRANEOTIK ITSAS BIDAIA Urtarrilaren 19an <i>Bartzelonatik itoera</i> 7 gau; Bartzelona-Marsella-Genova-Eroma-Szila-Malta, pensio osan	389 ¹⁰⁰ €
TENERIFE Urtarrilaren 28an <i>Bilbotik hegaldia</i> 7 gau 3* hotelean, pensio erdian	395 ¹⁰⁰ €
MALDIVAS Apirilak ekanera <i>Madriðtik hegaldia</i> 7 gau 4* hotelean, pensio erdian	1579 ¹⁰⁰ €
MENORCA Martxoaren <i>Bilbotik hegaldia</i> 7 gau apartamentuan, pensio erdian	420 ¹⁰⁰ €
CERDEÑA Ekainean <i>Bilbotik hegaldia</i> 7 gau 4* hotelean, gosaria barne	545 ¹⁰⁰ €
ASTE SANTUA	
LANDAS Martxoaren 28an 4 gau, 4 lagunenitzeko apartamentuan alojamentua	201 ¹⁰⁰ €
TURKIA Martxoaren 24 eta 25ean <i>Bilbotik hegaldia</i> 8 eguneko zirkuitua 3* hoteletan, pensio erdia + bisitak barne	601 ¹⁰⁰ €

INDIA Martxoaren 24an <i>Madriðtik hegaldia</i> 8 eguneko zirkuitua <i>Japur-Agra-Delhi</i> , 3* hoteletan, gosaria + bisitak barne	1128 ¹⁰⁰ €
AMSTERDAM Martxoaren 20an <i>Bilbotik hegaldia</i> 4 gau 4* hotelean, gosaria barne	679 ¹⁰⁰ €
PARIS Martxoaren 25an <i>Madrilðtik hegaldia</i> 4 gau 2* hotelean, gosaria barne	355 ¹⁰⁰ €
BERLIN-PRAGA Martxoaren 29an <i>Bilbotik hegaldia</i> 8 gau 4* hoteletan, gosaria barne	880 ¹⁰⁰ €
TURKIA	

Aukera gehiago gure bulegoan eta
www.hernanibidaia.es
www.bidaibila.com

HERNANI BIDAIAK
 Urdeta 6
 943 33 00 49

JARRAITU:

■ BERTSOLATA

Bertsotan ariko direla bai, baina 'lata' izango denik ezin pentsa...

Maila haundiko bertso jaialdia izango da gaur, 18:30etan hasita Biterin, eta 17:00etan jarriko dituzte sarrerak salgai.

URTEA bezala, bukatzen ari da aurtengo Bertsolata ere; eta azken txanpan, ez dute prestatu bertso *latarik*, maila haundiko bertso jaialdia baizik.

Gaur arratsaldean izango da, 18:30etan hasita Biteri kultur etxean; eta taula gainera igoko diren bertsolariekin, Barakaldoko BECen tankera hartuko du Biteriko areto nagusiak, Bertsolari Txapelketa

Nagusiko lau finalista egongo baitira: Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Amets Arzallus eta Sustrai Colina. Eta haiekin batera, Hernaniko Bertso Eskolako bi kide gehiago: Agin Laburu eta Eli Pagola.

Saioaz gozatzeko sarrerak, gaur bertan jarriko dituzte salgai, Biterin, jaialdia hasi baino ordu eta erdi lehenago, arratsaldeko 17:00etan.

Urte Zahar Errondarekin zita, bihar arratsaldean

Eta urtea agurtzeko, kantari aterako dira bihar, Bertso Eskolako kideak, Ohitura Zaharrak abesbatzakoekin batera.

Arratsaldeko 17:00etan jarri dute elkartzeko zita, udaltxeko arkupeetan, eta bertatik abiatuko dira kantari, kale, plaza eta tabernak girotu eta urtea agurtzeko. ■

■ HERNANIKO GAZTE MUGIMENDUA

Jardunaldien azkeneko eguna, gaurkoa

Lau zita izango dira Kontrakantxan.

GAUR bukatuko dira, beste lau zitarekin, Hernaniko Gazte Mugimenduaren lau eguneko jardunaldiak. Gazte Bizilagunekin hasi, eta afaria eta bertso tailerarekin bukatuko dute. ■

ABENDUAK 30, larunbata
10:00, Gazte Bizilagunak: Zurrumurruak.
16:00, Kontrakantxa gaztetxea: Hausnarketa Prozesua.
21:30, Itxiera.
22:00, Afaria eta Bertso Tailerra.



Hitzaldi eta aurkezpen ugari izan dituzte, aurreko hiru egunetan.

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Aurrezki energetikoa eta Udal Aurrekontuak

Abenduaren 16an, kronika lokalean Udal Aurrekontuei buruz argitaratu zen artikularen harira, babestu nahi dugu alderdi batzuek defendatzen duten postura, salatuz dirulaguntzak jasotzeko bidea, askotan, obstakulu lasterketa bat bilakatzen dela.

Aurrekontuetan txertatzen dira dirulaguntzak, komunitate eta bizilagunei eskaintzen zaizkie, publizitate gutxiarekin, eta gero Udalak ez du diru hori gastatzen, interesatuek ez dutelako lortzen diru horretara sarbidea. Batzuetan, ez dutelako garaiz izaten horren berri, edo eskatutako

baldintzak betetzeak daukan zailtasunagatik.

Gure Udalak hondakinen bilketaren aldaketak jakinarazi nahi dituenen, kartelak jartzen ditu portal bakoitzean, bizilagunak informatuz.

Komunitate eta bizilagunentzako dirulaguntzen kasuan, berriz, ez du sistema hori erabiltzen; beste batzuk erabiltzen ditu, jakinda ez direla hain eraginkorrak.

Kasu garbi bat da balkoi eta leihoak itxtekoa. Aurreikusitako partida gastatu gabe, eta obra egiteko interesa zeukaten bizilagunak egonda, eskatu zitzaion epea luzatu edo baldintzak aldatzeko.

Udalaren erantzuna, justifi-

kikazina justifikatu nahian, bikoitza izan zen:

-Epea ez da luzatuko.
 -Datorren urterako aurrekontuetatik desagertu egin da partida.

Bizilagunekiko errespetu falta iraunkorra da, eta eskatzen dugu dirulaguntzak berriro jasotzea aurrekontuan, Udalak errespetatu nahi ez duela dirudien akordio baten emaitza direlako; eta bizilagunei erraztea sarbidea, partidak gastatzen ez direnean.

Eskerrik asko, Alkate jaunna. Gizatiarra bada huts egitea, jakintsuena da zuzentzea.

Ion Azpiazu Goñi
 Kaxko hobetu

■ GABONAK

Urte berriarekin, antzerki eta tailer

Atzo jarri zituzten sarrerak salgai, 'Ninika' eta 'Drag-e uraren bila' emanaldietarako.

ORAINDIK Gabonetan murgilduta, ekintzaz beteta hasiko dute urte berria, haur, gazte-txo eta ez hain gaztetxoek.

Asteartean hasi eta ostiralera arte, ipuinak, antzerkia, komikigintza musika edota jolasak izango dira. Asteartean, bi ipuin kontaketa saio izango dira Biterin, goizean; eta mahai jolasak, arratsaldean.

Asteazkenean, berriz, eskalatzera joango dira Pio Barojara, eta Gaztelekuan apuntatu behar da, 3 euro eramanda.

Eta asteazken eta ostegunetan, bi emanaldi izango dira Biterin: *Ninika* dantza ikuskitzuna asteazkenean, eta *Drag-e uraren bila* antzezlan ostegunetan. Bietarako sarrerak, atzo jarri ziren salgai (2,7 euro). ■

URTARRILAK 2, asteartea

11:00, Ipuin kontaketa, Biterin. 3-4 urte.
11:30, Ipuin kontaketa, Biterin. 5-7 urte.
17:00, Mahai jolasak. 12 urtetik gorakoentzat, Gaztelekuan.

URTARRILAK 3, asteazkena

16:00, Eskalada. 12 urtetik gorakoentzat, Pio Baroja kiroledegian. Izenematea Gaztelekuan, 3 euroan.
17:00, Dantza, Biterin: *Ninika*, Elirale konpainia. 3 urtetik gorakoentzat. Sarrerak salgai 2,7 euroan.

URTARRILAK 4, osteguna

11:00, Komiki tailerra, Biterin. 10-14 urtekoentzat. Izenematea doan, udal liburutegian.
17:00, Arratsalde musikatua. 12 urtetik gorakoentzat, Gaztelekuan.
17:00, Haur antzerkia, Biterin: *Drag-e uraren bila*. 4 urtetik gorakoentzat. Sarrerak salgai 2,7 euroan

URTARRILAK 5, ostirala

11:00, Komiki tailerra, Biterin. 10-14 urtekoentzat. Izenematea doan, liburutegian.

■ KALEKO ELKARTEA

Liburu eta disko azoka solidarioa, bihar

Urteko azkeneko egunean, bihar, jarriko du Kaleko elkarteak, liburu eta diskoen azoka solidarioa. Plaza Berrin jarriko dute, goizeko 10:30etan hasi eta eguerdiko 14:00ak arte. ■

■ UDALA

Piroteknia, toki irekietan eta 15 minutuz

Udalak hiru ohar jakinarazi ditu, bihar gauean izan ohi den piroteknia-aren erabileraren inguruan: 15 minutuz bakarrik izango dela aukera (00:00-00:15); Kaxkoan ezingo dela erabili, eraikinak egurrezkoak izanik, sua sortzeko eta zabaltzeko arriskua handia delako; eta Kaxkotik kanpo, toki irekietan bakarrik ahal izango dela erabili. ■

■ PORTU AUZOA

Santa Barbaratik agur, 2017 urteari

Urtea giro eta sasoi ederrean bukatzeko, Santa Barbarara mendi buelta eggingo dute bihar, Plazatik 10:30etan abiatuta, Portuko auzotarrak. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK ETXERAT

«Urrats garrantzitsu asko eman arren, sufrimenduz tindatutako urtea izan da»

Agerraldia egin zuen atzo Etxeratek, Marta Igarritz Izeta preso hernaniarraren senideek izandako istripua salatzeke; 100 lagunetik gora elkartu ziren Atsegindegin. «Eskerrak denoi, gure ondoan egon zaretelako», adierazi zien Ana Igarritzek.

ISTRIPUA izan zuten asteazkenean, Castello I kartzelatik bueltan zetozela, Marta Igarritz Izeta preso hernaniarraren senideek; amak, izebak eta ahizpa batek. Eta atzo, agerraldia egin zuen Etxerat elkarteak, Atsegindegin, istripua salatu, informazio gehiago eman, eta Marta Igarritz eta bere senideei elkartasuna eta babesa erakusteko.

100 lagunetik gora elkartu ziren bertan, Etxeraten deialdiari erantzunez. Eta bertan zen Ana Igarritz ere, Marta Igarritzen ahizpa, istripua izan zuena: «eskerrak denoi, gure ondoan egon zaretelako; babes haundia eman diguzue. Eta eskerrak baita ere, momentuan lagundu zigutenei».

«Urtearen irakurketa positiboa egin nahiko genuke, baina ezin dugu»

Etxerateko ordezkariak hartu zuten hitza gero, eta azaldu zuten, «urte bizia, intentsitate haundikoa» izan dela 2017a: «urrats garrantzitsu askok itxaropenez bete gaituzte, gure egunerokotasunari aurre egiteko; baina sufrimenduz islatutako urtea izan da».

Izan ere, nabarmendu zuten aurrerapauso kualitatibo haundia eman duela euskal gizarteak, «estatu espainiarraren eta frantziarraren traba eta blokeo guztiak gainditu, eta bake prozesua beste agertoki batera mugiaraziz, inori itxaroten jarraitu gabe».

Eta gaineratu zuten: «irakurketa positiboa egin nahiko genuke urte honetaz, baina ezin dugu, ez digute hala-



Ana Igarritzek, Marta Igarritzen ahizpak, eskerrak eman zizkien bertaratuei.

korik egiten uzten. Euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak egoerak berdin jarraitzen du. Sei urte bete direnean ETak bere ekin-tza armatua utzi zuela, adierazgarria da euskal preso politikoei sufritzen dituzten salbuespen neurriek aktibo jarraitzen dutela; are gehiago larri gaixo dauden presoena. Eta bitartean, senide eta lagunok milaka bisita burutu ditugu, kontaezinak diren bidai amaigabeetan. Urte luze honetan bederatziz ezbehar izan ditugu, hogeitazauritu eta horietatik lau larri; azkena, asteazkenean gertatu zena».

«Obserbazioan jarraitzen dute, amak eta izebak»

Istripuari buruzko informazioa ere eman zuten agerraldian: «arratsaldeko 16:30etan gertatu zen, Leitzako bigarren tunela igaro ondoren. Elurra egin berri zegoenez, autoaren kontrola galdu, eta bazterre-

an istripua izan zuen beste kotxe baten kontra jo ziren bortizki. Martaren ahizpak bere kabuz ateratzeko aukera izan zuen, eta ondoren ospitalera eraman zuten. Izeba ere bere kabuz atera zen, baina ama atera egin behar izan zuten. Izeba eta ama Donostiako Poliklinikara eraman zituzten, eta obserbazioan jarraitzen dute».

Azaldu zuten, baita ere, «nabarmenezkoa» dela istripuaren larritasuna: «amak sei saihezt dauzka apurtuta, eta bi bertebra zanpatuta; eta izebak, bularrezurrean haustura dauka. Hauek dira disperseio politika krudelaren emaitzak. Gogorazi nahi ditugu, 28 urte luze hauetan 16 hildako eragin dituela».

«Urte amaigabea, sufrimenduz tindatutako urtea izan da, euskal preso eta iheslarien senide eta lagunentzat. Baina ez diogu ilusioari muzin egiten, eta itxa-

ropen eta konfiantza ukigabearekin ekin nahi diogu urte berriari. Hemen izango gaituzue lanean, gure azken helburua bete arte: etxean eta bizirik nahi ditugu!», aldarrikatuz zuten, bukatzeko.

Gero, 20:00etan Tilosetan elkartuta, mobilizazioa eta agerraldia egin zuten, Kalera Kalerak deituta.

Martutenera martxa bihar, eta 'photocall'a gaur

Bihar, berriz, Martuteneko kartzelara martxa antolatu du Kalera Kalerak, eta goizeko 10:00etan abiatuko dira Zinkoeneatik. Eguerdian, ekitaldia egingo dute han. Atzoko mobilizazioa eta biharko martxa babestu ditu Sortuk, eta parte hartzeraz deitu du.

Gaur, berriz, photocalla jarriko du Sarek, 12:00etatik 14:00etara Nafar Kalean, Bilbon egingo den manifestazioa berotzeko. Prest gaude da aurtengo leloa. ■

■ TXANTXANGORRI



Ehiza txapelketa, orain bi aste.

San Silbestre torneo, gaur

Tiro txapelketa izango da Oiartzungo Arkalen, 09:00etan hasita.

BOSGARRENEZ antolatu du aurten, Txantxangorri elkarteak, San Silbestre tiro txapelketa. Oiartzungo Arkaleko tiro zelaian izango da, 09:00etatik 10:00etara; eta bertan apuntatu beharko da. 15 euro dira.

Partehartzaile bakoitzak, 25 plater izango ditu, ahalik eta ale gehien jotzeko. Txapelketa bukatutakoan, eguerdiko 12:00ak aldera, elkartera joango dira, eta bertan banatuko dizkiete sariak onenei: irabazleari Gabonetako saskia, eta 15garrenera arte, jasoko dute sariren bat. Gainera, luntxa ere eskainiko diete, partehartzaile eta laguntzaileei.

Iñaki Loyarte txapeldun, ehiza txiki txapelketan

Orain bi aste, berriz, Eremuko ehiza txiki Txapelketa jokatu zen, txakurrarekin. Epelerreka eta Usokorrekan egin zuten txapelketaren 39garren edizioa, eta Iñaki Loyarte izan zen onena, 506 punturekin; bi faisan eta hiru eper botu zituen. Bigarren, Asier Arrizabalaga izan zen, 504rekin (hiru faisan eta bi eper); eta hirugarren Odei Egaña, 404rekin (bi faisan eta bi eper).

Beterano onena Javier Oskoz izan zen, 204rekin (bi eper). ■

LEIREKIN
Leire Legorburu fisioterapia
kol. zk. 1919

Elkano kalea 18, Hernani - 666 954 354
leirekinfisioterapia@gmail.com

KIROL FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA UROGINEKOLOGIKOA

FISIOTERAPIA OROKORRA

I ATLETISMOA

Urtea korrika amaituko dute hernaniar askok

San Silbestrea bosgarren urtez jarraian antolatu da bihar Hernanin Wukroren alde, 18:00etan, Plazatik aterata.

AZKEN bost urtetan zehar CD Hernaniko Atletismo Sailak antolatu duen Wukroren aldeko San Silbestrea egingo da bihar, herriko kaleetan zehar.

Gaur da izena emateko azken eguna, 8 euroren truke. Pelotadenda eta Ibai Mendi dendetan egun guztian zehar egongo da izena emateko aukera; eta gainera, apuntatzeko karpa jarriko du CD Hernaniko Atletismo Taldeak Plaza Berrin,

goiz osoan zehar; 10:30etan hasi eta 15:00ak arte. Bertan izango da aukera, azken momentuko izenemateak egiteko, dortsalak jasotzeko eta lasterketako kamixetak hartzeko.

Hala ere, justu lasterketa hasi baino lehenago ere, egongo da izena emateko aukera, irteeran, 10 euroren truke. Beti ere, gomendagarria da aurretik egitea. Haurrek, berriz, ez dute izena eman beharko.

Hiru kategoria eta ordutegi

Lasterketan kategoria ezberdinetako korrikalariak hartuko dute parte, hiru lasterketatan banatuta: 8 urte artekoak hasiko dira 17:30etan; 8-13 urte bitartekoak 17:45etan; eta lasterketa nagusia, 14 urtetik gorakoena, 18:00etatik aurrera izango da. Antolatzaileek adin guztietako jendeari luzatu diote deia, «guztion artean festa hau haundi egin dezagun». II

I ESKU PELOTA

Markel Lizeagak Gipuzkoako finala jokatuko du gaur

Beotibarren jokatuko du Gipuzkoako finala, 11:30etan, Intxurreko Artolaren kontra. Arrieta, Antxon Pebet finalean ariko da gaur

URTEA amaitzearekin batera esku pelota final desberdinak jokatuko dira gaur eta bihar. Hernaniar pelotariak ere izango dira protagonista horietako batzuetan. Azpimarragarria da Markel Lizegak jokatuko duen Gipuzkoako Txapelketako Finala nagusien mailan. Gaur, Tolosako Beotibarren, 11:30etatik aurrera, Intxurre taldeko Artola du aurkari finalean. Hernaniarrak jokatu dituen bost partidua irabazita iritsi da finalera eta hautagai nagusia da txapela irabazteko, txapelketako sorpresa nagusia izan denaren kontra.

Tolosatik gertu, Villabonan, Antxon Pebet Torneoko finala jokatuko du beste hernaniara batek. Gaur, 18:30etan, Zezeagarekin batera, Urbieta I eta Aranguren izango dituzte aurkari. Finalera iristeko hiru kanporaketa gainditu behar izan dituzte.

Finalerako ez dago faboritrik. Bi aurrelariak afizionatuetan maila onean egonkortu diren pelotariak dira eta atzelariak, etorkizun oparoa izan dezaketen bi pelotari.

Gipuzkoako Trinkete Txapelketa CD Hernaniko bi pelotarik konpromezu garrantzitsu dituzte

Gipuzkoako Trinkete Txapelketa

CD Hernaniko bi pelotarik konpromezu garrantzitsu dituzte

asteburu honetan. Mailaz ez jeisteko partidua jokatuko du gaur Iñigo Labaka seniorrak 17:00etan Iruran. Azkoitiko Anduezen aurka lehiatuko da; irabazleak mailari eutsiko dio eta partidu parekatua espero da.

Bihar, 12,00etan, Iruran, Garikoitz Arizmendi jubentarian txanda izango da. Final-aurdenak izango ditu Azkoitiko Oteizaren aurka. Hernaniarrak ez du oraindik partidurik galdu txapelketa guztian zehar eta faborito da finalerdietara pasatzeko. Beste lau partidu ere jokatuko dituzte hernaniarrek, gaur eta bihar. II

I IGERIKETA

Gabonetako 20garren igeriketa saria, gaur

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da igerilekuan eta sei proba jokatuko dira.

IGERILEKUAK ireki dituzte aurretik eta horrekin batera txapelketak itzuli dira Hernanira. Txapelketarik garrantzitsuenetakoa Hernanin Gabonetako Saria izaten da eta gaur jokatuko da, 16:00etatik aurrera. 20garren edizioa beteko du eta urteroko probak egingo dira igeri.

100 metroak bost probetan; 100 tximeleta, 100 bizkar, 100 bular, 100 libre eta 100 estiloak.

Gainera, errelebo proba bat ere egongo da, hain zuzen, 4x50 libreak. Bergara, Legazpi, Tolosaldea eta Hernaniko igerilariak ariko dira. Tolosaldea Gipuzkoako bigarren talderik indartsuena da Bidasoa eta gero, eta bertan Espainiako Txapelketetan aritzen diren igerilariak daude.

Txapelketa arina eta maila onekoa espero da eta denbora aipagarriak ikusi daitezke. II

I IZOTZ HOCKEYA

Arraras eta Martin, Kopan garaile

Txuri Urdin taldea espainiako Kopa txapeldun izan zen pasa den astean, finalean Jacari 3-1 irabazi ostean. Txurin ere badira bi hernaniar: Ander Arraras eta Aitor Martin. Zorionak! II

I ATLETISMOA-LOTERIA

20 euroak ostegunero lokalean

Atletismoko loteriak, boletoko, 20 euroko saria jaso du eta ordaintzeko lokaletik pasa beharko dute sarituek, ostegunero, urtarilaren 4tik aurrera eta martxoaren 22ra arte, 19:00etatik 20:00etara. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

<p>✠</p> <p>I. URTEURRENA</p> <p>Macaria Fernández Rodríguez</p> <p>(Mere' Garciaren alarguna)</p> <p>2016ko abenduaren 30ean hil zen, 94 urterekin</p> <p>-Goian Bego-</p> <p>Macariaren senitartekoez urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.</p> <p>Urteurreneko meza, BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.</p> <p>Hernanin, 2017ko abenduaren 30ean</p>	
--	---

FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

UDALA PRENTSA-OHARRA

Sagardo Etxearen kokapen berria erabakitzeke, azterketa martxan Udalak

Bi hilabeteko lana izango da, eta dagoeneko Udalak eman ditu zehaztapen guztiak Kultura Batzordean. Azaldu dutenez, «azterketa hau 2017ko aurrekontuetan jasota dago, alderdi sozialistak hala eskatuta».

2017KO aurrekontuak jasotzen duen bezala, Astigarragako Udalak azterketa abiarazi du Sagardo Etxeari kokapen berria bilatzeko: «azterketa 2017ko aurrekontuetan jasota dago alderdi sozialistak hala eskatuta», onartu dute.

Bi hilabetez luzatuko da lana, eta dagoeneko eman du-

te azterketa osoaren berri Kultura Batzordean.

Kokagune berria, helburu

Udalak azaldu duenaren arabera, «eskatu den azterlanaren helburua da Sagardo Etxeari kokagune berri bat bilatzea, Fundazioko eremuetatik kanpo». Izan ere, Udal Gobernu-

Bi arkitekto eta ambientologo batek osatutako lantaldeak egingo du txostena.

ren usteetan, «orain arte Fundazioaren jabegoan dagoen museoak etorkizunera begira bere leku propioa izan beharko

luke, udal jabegokoa den eremu batean». Eta horixe da, beraien hitzetan, «duela bi legegaldi EA eta EAJ-PNVk osatu-

tako gobernuak hartutako konpromezua».

Hiru kideko lantaldea

Bi arkitekto eta ambientologo batek osatutako lantaldeak egingo du lana; Ingurugiroa, sozioekonomia eta hirigintza-aren eraginaren ebaluazioa jasoko du txostenak. ||

GABONAK

Gabonetako azken trakari, txotxak segida

Haur Parkea jarriko dute asteartean; Jolas Txikik eta Joko Aretoak ere, jarraituko dute.

BIHAR emango zaio bukaera urte zaharrari, eta beraz, 2018arekin batera, urtarileko agenda estreinatuko dute astigarrak. Gabonak borobiltzeko ekintzeekin hasiko da, asteartetik. Egun horretan, Haur Parkea jarriko dute, kiroldegian: goizez, 11:00etatik 13:30etara irekiko dute, eta arratsalde, 16:30etatik 19:30etara. Sarrera, debalde izango da.

Horrez gain, haur eta gazteentzat bereziki prestatutako

ekintzek izango dute segida hilabete hasiera honetan, hain zuzen, Jolas Txikik eta kultur etxeko Joko Aretoak.

Txotx denboraldiaren hasiera, erdialdean

Hilabetea are bereziagoa egingo du, ordea, beste ekitaldi batek; hilaren 15ean irekiko baita txotx denboraldi berria, eta Gurutzeta sagardotegian irekiko dute aurreneko kupela. ||



Joko Aretoa jarri zuten aste honetan kultur etxeko areto nagusian, eta datorren astean ere izango da jolasteko aukera.

Urtarileko agenda

2 Haur parkea. Ludoteka erraldoia, puzgarriak, pista amerikarra, simulatzaileak, zezen mekanikoa, rokdromoa, ohe elastikoak, talo-taillerra... Kiroldegian, 11:00etatik 13:30etara, eta 16:30etatik 19:30etara.
9-16-23-30 Jakin +. Esperientziak trukatu, trebatu, pertsonen bizi-kalitatea hobetu eta genero ikuspegia lantzeko egitasmoa. Kultur etxean, 16:00etatik 18:00etara. Hizkuntza: gaztelania. Izen-ematea: berdintasuna@astigarraga.eus. Antolatzailea: Berdintasun saila.

9/16 Sorginak. Elisa Palacios humanitateetan lizentziatuaren eskutik sorginen gaia landuko da: gorputz eta arimak sendatzeko ezagutza, emakumeak eta heresia, manipulazioaren historia, sorgin berriak, akelarreak...

23/30 Agnes Varda. Fermin Martínez Galbarra zinema kritikorearen eskutik zinema zuzendari honen lana aztertuko da.

89 urte izan arren, gogotsu jarraitzen du lanean, baina bere belaunaldiko gizonak baino ospe gutxiagorekin. 2017an Donostia saria jaso zuen, saritua izan den lehenengo emakume zuzendaria da.

11 Ipuin kontaketa: *Munstro arrosa (Olga de Dios)*. Liburutegian, arratsaldeko 18:00etan. 3 urtetik aurrerako haurrentzat Lur Korta kontalariaren eskutik.

12 Po Hesietatik. Oskar Estanga eta Jon Barberenaren ikuskizun berria. Gaztelekuan, arratsaldeko 19:00etan. Sarrera, doan.

14 Antzerkia: *Mendi tontorrean*. Txaloren eskutik, Iraitz Lizarraga, Alfonso Diez eta Aitor Fernandinorekin. Mendizale espedizio xeble batek munduko mendirik altuena garaitu nahi du, Everest mendia, Sargarmatha mitikoa. Tontorrerako bidean, abentura hunkigarriak biziko dituzte, pertsonaia harrigarriekin egingo dute topo. Garrantzikoena, ordea, ez da gailurrera ailegatzea, etxera osorik bueltatzea, baizik.

Kultur etxean, arratsaldeko 17:00etan. Sarrera: 2,5 euro haurrek, eta 5 euro, helduek.

15 XXV. Sagardo Berriaren Eguna. Sagardoaren Lurraldeak 2017ko uzta-aren eta sagardo berriaren ezaugarriak emango ditu ezagutzera kultur etxean 12:00etan hasiko den ekitaldian. Jarraian, kultur etxe ondoko sagastian sagarrondo berri bat landatuko da. Aurten denboraldi berriko lehenengo kupela Astigarragako Gurutzeta sagardotegian irekiko da.

16 Komunikazio eta coaching tailerra. Kultur etxean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Hizkuntza: gaztelania. Antolatzailea: Harituz. Babesleak: Astigarragako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

16 Gurasolagun tailerra. Arratsaldeko 16:45etan, ikastolako aretoan. Aurrez izena eman behar da: AEKn edo Herri Eskolan.

18 Gitarra elektriko emanaldia. Musika eskolako gitarra ikasleek eta lantalde modernokoez eskainia. Norberto Almandoz musika eskolan, 19:00etan. Sarrera, doan.

20 Zinema: *Igelen erresuma*. Kultur etxean, arratsaldeko 17:00etan. Iraupena: 86 minutu. Sarrera: 2 euro. Antolatzailea: Euskara saila.

22-26 Sahararen aldeko kanpaina. Astigarragako Herri Eskolan. Ekarpenak astelehenerdik ostiralera egin behar dira, ikastolako ordutegian.

23/24-31 Zilegi Eskolak. Nabarra Oñatz kaleko AEK euskaltegian. Doan. Izen-ematea: Astigarragako AEK euskaltegian, astigarraga@aekeus.com. Antolatzailea: Udaleko Euskara saila eta AEK euskaltegia.

- **Apiterapia:** Pello Zubiriaren eskutik. Urtarrilaren 23an, 09:30etan; eta 24an, 18:30etan.

- **Eskulan ikastaroa:** Itziar Salaberriaren eskutik. Urtarrilaren 31n, 09:30etan.

27 Kontzertu didaktikoa: *Intxaur Hauskailuaren ipuina*. Sagar boskotek Esther Iñiguezekin batera, haurrei zuzendutako kontzertua eskainiko du eta zuzendutako haize bozkotearen instrumentuak ezagutzera emango dituzte. Norberto Almandoz musika eskolan, 17:00etan.

27 Antzerkia: *Hozkailua*. ArteDramaren eskutik, Ander Lipus eta Patricia Urrutiarekin. Punkak izan ziren, lagun minak. Bakoitzak bere bidea egin du, baina Jimmyren heriotzak batu ditu berriro ere. Hozkailu batean ekarri dute haren gorpua Euskal Herrira, garagardo lata eta hestekien artean, zin egin baitzioten bere jaio-terrian lur emango ziotela. Nongoa zen galdetzea ahaztu zuten, ordea. Unai Iturriagak idatzi du testua, umore beltza, bai, baina sakontasunarekin. Sarrera: 6 euro, helduek; 3 euro, adin txikikoez. Kultur etxean, 20:00etan.

27 Mus txapelketa: 16:00etatik aurrera, Zipotza elkartearen. Izen-ematea urtarilaren 1etik aurrera egin behar da elkartearen bertan. Bikoteko 10 euro ordainduko dira orduan.

29 Literatur solasaldia. Jorge Carre- rok zuzenduta, hilabete honetan Francisco Umbral idazlearen *Los hechos arborescentes* liburua- ren inguruko izango da. Hizkuntza: gaztelania. Liburutegian, arratsaldeko 19:30etan.

UDAL GOBERNUA PRENTSA-OHARRA

«Oso urte garrantzitsua» 2017a, EAJ-PNVrentzat

Bihar bukatuko den urtearen balorazioa egin du Gobernuak. Aurreneko helburu bezala, gogorarazi dute: «edukiontzi-sistema ezarri da, eta ekainetik, 300.000 euro aurrezten dira urtean».

2018GARREN urtea ate joka dago, eta hasi aurretik, 2017ko balorazioa egin nahi izan du EAJ-PNVren Udal Gobernuak: «bukatzear den urtea oso emankorra izan da». Gainera, onartu dute, «oso urte garrantzitsua» izan dela.

Trena, «mugarri historikoa» Udal gobernuak azaldu du hainbat helburu bete dituela aurtengoan. Aurreneko helburu bezala, gogorarazi dute: «edukiontzi-sistema ezarri da, eta ekainetik, 300.000 euro aurrezten dira urtean».

Horrez gain, azpimarratu dute «urte honetan zehar herria hobetzeko proiektu zerranda bat bete da: jubilatuen etxearen berritzea; txakurantzatzat parkeak; adineko jendarentzat gimnasiako elementuak; saneamendu-lanak Anuskán; Santiagomendiko hainbat zonalde eta kupelaren rontonda argiztatu dira; Ergobian obrak egin dira uholdeen aurka; kiroldegian muskulazio-areto berria irekia da; klubari babesa erakusteko, Mundaroren hitzarmena bikoiztu da; Mokolo plazako pabimen-

«Inoiz ez bezalako lorpena» izan da tren geltokiarena, Gobernuarentzat.

tua birgaitu da; haurren parke batzuetan jolas egokituak jarri dira; hezegunearen biala berritu da; hilerrian berrikuntzalanak egin dira eta baita herriko mantenimenduan ere, azken hauek 2018an segida izango dutenak». Horrekin lotuta, adierazi dute «martxan» dagoela haur parke berria, anbulategiaren parekoa, «egungoa baino haundiagoa izango da, eta gainera, estalia».

Nabarmendu dute, baita ere, «herriaren garapenaren ikuspuntutik, Kontxa Etxeberria plazaren inaugurazioa, Astigarragako haundiena, bertako joko-eremuan jarri baita aurreneko haur parke publiko estalia». Gainera, «Sagardo Plaza berrurbanizatu da, laster inauguratuko dena, eta bertako joko-eremua familiekin kontsultatu da». Proiektu

estrategiko bezala, «Udal gobernuak hiru proposameneko azterketa bat eskatu du Herri Eskola haunditzeko, eta dagoeneko aurkeztu dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailan, laster martxan jar dezaten».

Bukatzeko, «mugarri historikoa» ere lortu dutela diote: «EAJ-PNVk ekarri du trena Astigarragara, lortu da ADIFek Astigarragako apeaderoa sartzera AHTaren obretan». Obra hori hurrengo legealdirako aurreikusten da: «inoiz ez bezalako lorpena».

2018a, ildo beretik

Aurrera begira ere, beren konpromezuekin jarraituko dutela diote: «Udal gobernuak jarraituko du hobetzeko konpromezuak izpiritu konstruktiboarekin eta denontzat gobernatuz». 2018rako aurrekontuak prestatu dituzte kontuan hartuta «jarraituko dela erakusten baliabide publikoak kudeatzen ditugula alderdien interesen gainetik, eta Astigarragaren etorkizuna hipotekatu gabe, dirua zaborrontzira botatz», bukatu dute. ||

KIROLDEGIA KIROL ASTEA



Eskubaloieko ate irekien jardunaldiak egin zituzten asteartean, kiroldegian.

Kirolek kirolera, gaurko Pelota Festaraino

Kirol Astea antolatu du Mundarro Kirol Elkarteak aste honetarako. Kiroldegian izan da aukera hainbat kirol probatzeko (eskubaloia, futbola, saskibaloia), eta gaur borobilduko dituzte jardunaldiak Pelota Festarekin. Kasu honetan, Txomiñenea pelotalekuan elkartuko dira Mundaroko pelota eta palako neska-mutilak, eta jokatzen arituko dira goiz eta arratsaldez. ||

TXIRRINDULARITZA

Lidergotzari eusten, Urko Semperena

Gaur jokatu dute Bio Racer-Oiartzun Bike Pista Sariaren 7garren jardunaldia, arratsaldeko 16:00etan, belodromoan.

DAGOENeko jokatu dituzte Bio Racer-Oiartzun Bike Pista Sariaren sei jardunaldi, eta Urko Semperena astigarrara ari da lidergotzari eusten. Gaur izango dute hurrengo jardunaldia, seigarrena, 16:00etan, Anoetako belodromoan.

Semperena ederki, bi probatan

Azkeneko jardunaldian, gainera, bi probak ederki eginda. Aurrenekoan, *Tempo* deritzon horretan, bigarren postua eskuratu zuen, Eustrack talde bizkaitarreko Illart Zuazubiskar irabazletik bi puntura. Eta

bigarrenean, 7 bueltaro esprinta egin beharreko *puntuazio* proban, garaipen borobila eskuratu zuen, azkeneko esprintean.

Bi proben arteko puntuak batuz, beraz, lidergotzari eusten diola erakutsi zuen, dudarik gabe.

Romero eta Semperena, gorabeherekin

Jaime Romero kadetea eta Telmo Semperena juniorra ere izan ziren bertan. Romerok erretiratu egin beharra izan zuen, eta Semperena, aldiz, hamargarren postuan dago. ||

INUXENTE KROSA



Martinez, eskubitik hasita aurrenekoa, eta Rodrigo, hirugarrena.

Martinez eta Rodrigo, Inuxente azkarrenak

Inuxente Krosa berreskuratu zuten astigarrarek aurreko asteburuan, eta ez nolana! 50 bat partehartzaile izan zituen Mundarrok antolatutako lasterketak, eta horietatik azkarrenak izan ziren bi herritar: Iker Martinez, gizezkoetan, eta Sandra Rodrigo, emakumezkoetan. ||

GAZTE ASANBLADA

'Argazkicool' lehiaketa, urtea hasteko

Urtezahar gaua herrian ospatzeko deia egin du Astigarragako Gazte Asanbladak aurten ere. Goizeko 01:30etan egingo dute brindisa Zipotza elkartean eta ordutik aurrera egongo da prest 'argazkicool'-a, nahi duenak lehiaketan parte hartzeko. Hain zuzen, argazki politenak eta originalenak; urtarilaren 5ean jakinaraziko dira. Gainera, Zipotzan gauean zehar jarriko diren abestien zerrenda denen artean osatzeko deia egin dute. astiarrakogaztiak@gmail.com helbidera bidali beharko da proposamena. ||

EREÑOTZU GABON FESTA

Jolas eta ikuskizunak, gaur Gabon festan

18:00etan hasiko da eta taloak, jolasak, zirko emanaldia, musika... egongo dira frontoian.

KATILAZUR Guraso Elkar-teak eta Olak Auzo Elkar-teak antolatuta, Gabon festa egingo da gaur, 18:00etan hasita, Ereñotzuko frontoian. Jolas eta ikuskizunak izango dira, eta baita jatekoak ere. Taloak, jolasak, zirko emanaldia, musika... aspertzeko betarik ez da egongo gaur arratsaldean. Pasa den astean Txirritako guraso, irakasle eta ikasleak gabon eskean atera ziren. ||



Kantuan atera ziren aurreko astean, ereñotzuarrak.

EREÑOTZU EH MUS TXAPELKETA

Irrintzin, Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa

Urtarrilaren 14ean hasiko da lehen kanporaketa, 16:30etan, eta irabazleak Fagollagan bazkaria du.

10GARREN Euskal Herriko Mus Txapelketa urtarrilean hasiko da eta Ereñotzuko kanporaketa, urtarrilaren 14ean, jokatu da irrintzi tabernan. Izen ematea bikoteko 20 euro da eta kanporaketaren irabazleek Fagollaga jate-txean bazkari bat lortuko dute. Partidak 16:30etan

hasiko dira.

Lehen kanporaketa hau urtarrilaren 31era arte luzatuko da eta ondoren zazpi herrialdeetako kanporaketak, otsailaren 24an jokatu dira.

Aurten final nazionala Uztaritzen jokatu da, martxoaren 10ean. Euskal Herriko Mus

Federazioak txapelketarako prestatutako arauen arabera jokatu da eta hauek eskura daude lehen saiotik, baita www.ehmus.eus webgunean ere.

Oso sari potoloak daukete lehenengo sailkatuentzat; bidaiak, dirua, txapelak eta garaikurrak. ||

GOIZUETA UDALA

Udal zergak eta karga tasak, mantendu

Goizuetako Udalak 2018rako udal zergak eta karga tasak onartu zituen eta 2017ko berdina mantentzea erabaki zuen. Hiri-lurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasa katastroko balioaren gaineko %0,50 izanen da, landa-lurraren gainekoa %0,80 izanen da, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko udal zergaren karga-tasa: exekuzio materialaren %4,5 izango da. Erabaki hauek urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra. ||

GOIZUETA MUS TXAPELKETA

Umore Ona Mus txapelketa, bihar

Mus Txapelketa izanen da bihar, Umore Ona elkartearen. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da, eta saria jasoko dute onenek. Urte Zahar eguna giro ederrean pasatzeko. Izenematea 10 euro izanen dira, bikote bakoitzeko, eta momentuan bertan apuntatu beharko da. Kontsumizioak, norberak ordaindu beharko ditu. ||

GOIZUETA OLENTZERO



Gabon bezpera eguna alaitu zuten trikitixa doinuekin. Argazkia: Felix Loiarde.

Olentzero kaleetan barrena ibili zen

Olentzero bizkar gainean hartuta, kantuan irten ziren Eskolako haurrak, DBHkoentzat dirua biltzeko; eta hamaiketako ere egin zuten elkarrekin. Arratsaldean, berriz, presoan aldeko Olentzeroa atera zen eta arratsalde osoan zehar aritu ziren kantuan. Olentzero iristean ere, kantuan egin zioten ongiatorria. Urumea bailara osoko musikariak ere elkartu ziren, Goizueta, Ereñotzu, Astigarraga eta Hernanikoak, kontzertuan Hernaniko elizan. ||

GOIZUETA PILOTA

Umore Ona txapelketaren finalerdiak, gaur

10:00etan hasiko dira partidak umeen mailan eta ondoren kimuen eta gazteen txanda izanen da.

GOIZUETAKO Umore Ona pilota txapelketa finalerdietan da eta gaur jokatu dira hiru maila desberdinetan. Herriko pilotalekuan, 10:00etan, hasiko dira norgehiagokak eta lehenak kantxaratzten umek edo benjaminak izanen dira.

Bertan, Umore Ona elkarteko lau pilotari ere ariko dira. Lehen finalerdian daude elkarteko lau pilotariak; Alsua eta Garmendia Aranberri eta Lujambiorenen kontra ariko dira.

Bigarren mailan; Eple taldeko Iturain eta Etxeberria, Ilunpeko Elozegi eta Bidezabalen kontra.

Ondoren alebin edo kimuetan: Otaegi-Bidezabal (Ilunpe), Salaberriararren (Erreka) aurka. Lizazu-Lanzeta (Eple), Legarreta-Elizegi (Umore Ona) aurka.

Jubenil edo gazteen mailan finalerdi bat jokatu dute Olaetxea-Lazkoz, Aizkorbe-Apezetxea. ||

ZUBI-LANA

Lan bila dabilen herritarrak bertan mezu bat jarri nahi badu, astero jakinarazi beharko dio Kronikari; mezuan azaldu beharko du zein lan mota bilatzen duen edo zertarako eskaintzen duen bere burua. Aldiz, lana eskaintzen dutenek, iragarki merke gisa argitaratu beharko dute lan eskaintza; eta Kronikak, Zubi-Lana txokoa argitaratuko die, deialde.

Bi kasuetan, ostiral eguerdia baino lehen, iragarkiak lan@kronika.eus helbidera bidali behar dira edo 943 33 08 99 telefonora deituta azaldu. Gehienez 235 karaktere onartuko dira, hutsuneak barne.

LAN-BILA

Kamarero edo enkofradore bezela lan bila, deitu: 665 424 207

Emakume euskalduna sagardotegi eta tabernetan garbiketa egiteko prest, eta bestelako lanetarako ere bai. Deitu: 697 396 394

TAXIAK: 943 550093 (Hemani) 622 222 343 (Astigaraga) | **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hemani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigaraga)
DYA: 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hemani: 948 514037
ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hemani) 943 33 56 44 (Astigaraga) | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
/ Egunez: **Etxebeste** Elkano, 9 (Hemani) **943 552087** / Gaeuz: **Etxebeste** Elkano, 9 (Hemani) **943 552087**

EGURALDIA
GAUR Eguraldiak hobera egingo du gaur. Zerua laino gutxiarekin egongo da, eta behe-laino sortuko da aurreko orduan. Haizea ahula izango da. Tenperaturak gora egingo du. **Min.10° / Max.16°**
BIHAR Aldaketak izango dira bihar. Zerua tarteka lainotuta egongo da, baina ateri eutsiko dio. Arratsaldean zerua estali egingo da eta euria egingo du. Tenperatura, berdintsu. **Min.10° / Max.16°** (euskalmet)



TELESAILATAN ADI(K)TUA

Ikusi makusi, zer ikusi? 2017



AITOR CARACCILO



'Mr. Robot' telesaila gogorazi nahi du.

URTEA bukatzeaz dagoen honetan, askok galdetu didate ea zein iruditu zaiten urteko telesail onena. Egia esan behar badut, beti esan hoi diot inori oso zaila izaten dela halakorik esatea. Zein da urteko pelikula hobereana? Zein liburu jorratuena? Zein antzezlan borobilena?... Beti oinarrituko gara gure gustu eta preferentzietan halakoak esateko. Horrela, gerta liteke neretzako maisulana dena, zuetako edonork aspergarri edo handinahitzat hartzea. Hala ere, bidezkoa iruditzen zait, hobereana baino, neretzako urteko onenak zeintzuk diren aipatzea.

Bada era berean, honen barruan nahitaezkoa suertatzen zaidan bi maila sortu

beharrara. 2017an estreinatu direnen eta bigarren denboraldiarekin edo gehiagorekin bueltatu diren telesailena, ez da eta justua hasi berria dagoen telesail batek, trama zabal eta asentatuagoa izan dezakeen baten aurka borrokatzea, edota, berri batek sortzen duen zirrara edo sorpresa, zaharrago bati eskatzea. Bi kategoriatan, zerrenda 'luze' xamarra lortu dudala esango nuke, bien baturan 45 telesail sartu ditut eta. Hala ere, ez izutu, nere sekzioak ez du eta hainbesterako ematen. Goi partekoak aipatu, buruan daudenak gomendatu eta

hala ere gehiago nahi duenak, zerrenda osoa izango du Interneten: www.kronika.eus.

Estreinuei buruz hitz egiten badugu, esan beharra dago, aurtengoa, dramaren urtea dugula, komedia purora baztertu xamarra geratu da aurtengoan eta. Dramediatzat hartu ditzakegun *I love Dick*, *SMILF* edo *Dear White People* eman diote kutsu arinagoa, baino Goikaldeko partea (betiko legez) lau telesail indartsuen artean banatuko nuke: *BIG LITTLE LIES*, *MINDHUNTER*, *MANHUNT: UNABOMBER* eta *THE HANDMAID'S TALE*. 10 kapitulu baino gutxiagokoak lauak eta

biziki gozatu ditudanak. Pertsonaia nagusi indartsuak, trama gogorak, zuzendari eta produktore ospetsuek apadrinatutakoak denak. Benetan ikusi beharrekoak. Gainera, lehena eta azkena, azken Golden Globe's sarietako irabazleak izateak ere zuen jakin-mina esnatu beharko luke...

Itzuleren artean, askok ahaztutza dituzte *Mr. Robot* edo *Better Call Saul* handiak gogorazi nahiko nituzke. Baita helduontzako tabua ematen duen (eta guretzako eginak dauden) marrazki bizidunetako generoko *Rick and Morty* eta *Bojack Horseman*, biziki gomendatu ere. Baina dudarik gabe, Hiru dira sekzio hontan ene kuttunak: *MASTER OF NONE*, *HALT AND CATCH FIRE* eta *THE LEFTOVERS*. Lehena, momentuko komedia, nahitaezkoa. 2 denboraldi zoraga-

rrirekin, Dev, 30 urteko gazte baten egunerokotasuna kontatuko diguna. Eta beste biak, bueno, zer esan. Nere azken urteetako bi telesail gustokoenak. Biak gainera azken denboraldi zoragarriekin utzi gaituztenak. The Leftovers-en bukaerak negar batean utziko zaitu, hiru denboraldiz sufritu dugun guttiaren ostean. Eta *Halt and Catch Fire*, nibel hortara iristen ez bada ere, 4 denboraldietan pertsonaia nagusiek izan duten bidaiaren 'amaiera' ikusteak irrifar batekin utziko zaitu.

Gutxi iruditzen esandakoa? Emandako izenekin trailerrak bilatzea ez da gauza txarra izaten gogoia pizteko. Besterik, zerrenda luzera jo interneten. Dena den, egin behar duzuen gauza bakarra edozein telesairekin, eta ez adi(K)tuak esaten duenarekin soilik, GOZATU! Aurten edo urrengo urtean! ||

IRAGARKI MERKEAK

Pisua alokagai. Goizuetako herriko plazan pisu argitsua alokagai, 450€tan. Deitu: 647 61 45 13
Taberna alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo Labaka kalean, Hibai taberna. Deitu: 943 21 78 56

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Ginekologoa daukazu Hernanin, María Gregorio Alzua medikua
Hernaniko mediku zentroan (Urbietakalea 18, behea)

- // Urteroko azterketak
- // Haurdunaldi kontrolak
- // Erditzeak
- // Kirurgia
- // Amniozentesiak
- // Antisorgailuen kontrola
- // DIU...
- // Azkura, onddoak

Hilzordua eskatu
943 55 76 72ra deituz

ORDUTEGIA
10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 490 - 667 208 702

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
DIRUZ LAGUNDUA